

GAKO EKONOMIKOAK

- Beste ziurgabetasun gune batzuk sortu dira, eta horien artean koronabirusa da aipagarriena.
- Jaitsiera orokortuak munduko burtsa nagusietan.
- Inbertitzaileek aktibo tradizionalen, esaterako, dolarrean, yenean, urrean edo zor publikoan, bilatu dute babes. Zor publikoak jaitsiera neurritsu bat izan du errentagarritasunetan.
- Lehengaiei dagokien, nabarmentzekoa da petrolioaren prezioaren jaitsiera.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Urtarrila gorabeheratsua izan da merkatu finantzarioentzat. Urtea Iranen eta Estatu Batuen arteko tentsioa areagotuta hasi dugu, ondoren arindu dena, nahiz eta lasaitasunera berriz itzultzeko joera zapuztu egin den koronabirusarengatik. Wuhamen (Txina) epizentroa duen agerraldi birikoak mundua beldurrak airean dauka gaixotasun honek izan dezakeen garrantziagatik eta hedapenagatik. Hori guztia ondorio ekonomikoa ari da izaten eta sektore batzuen, adibidez, sektore turistikoaren edo airelineen sektorearen, kotizazioetan igarri da. Urtarrilaren amaieran, inork ez dakizki sor daitezkeen ondorio ekonomikoak zein izango diren. Gaur egungoarekin pareka daitezkeen lehenagoko gertaera epidemikoek adierazten dute beheraldi ekonomiko neurritsu bat izango dela, hobetuko dena jarduerak gora eginda berriz, eragin garbi txikia sortuz. Urtarrilaren amaieran, gertaerarik nabarmenena aipatutako alerta sanitarioa izan da. Halaber, hilabeteen zehar albiste izan dira: merkataritza akordioak sinatu izana, batetik, AEB eta Txinaren artekoa, bestetik, NAFTA herrialdeena; AEBren presidentetzarako primarioen lehen pausoak; Europako Banku Zentralaren berrikuspen estrategikoa irekitzea; Brexit-a gauzatzea (eta urtea amaitzen denean erlazioak bideratzeko negoziazio epe estua hastera); likidezia injekzioak Txinan; edo albiste onak izan dira, oro har, urteko azken hiruhilekoko enpresa emaitzen argitalpenetan, oraingoz, aurreitazio espektatiba oso murriztuak gaitzen ari direnak. Politika monetarioari dagokionez, hala EBZk (Europako Banku Zentrala) nola BoEk (Ingalaterrako Bankua) eta BoJek (Japoniako Bankua) aktiboak erosteko beren programak mantendu dituzte. Halaber, FEDek iragarri du interes tasak mantenduko dituela eta altxoraren letrak erosten jarraituko duela urteko bigarren hiruhilekoan, gutxienez, epe laburreko likidezia bermatzen jarraitzeko. Azkenik, makroekonomian, manufaktura adierazleek eta BPGak bildu dute arreta guztia, merkataritzaren atalean ziurgabetasuna arindu baitaiteke eta sektorea indartu daitekeen zantzuak baitaude. Txinan, manufaktura PMI ofizialak espero baino portaera hobea izan du, baina Caixinekoa espero baino gehiago jaitsi da. AEBn, manufaktura ISM espero baino askoz atzerago gelditu da eta Eurozonan, nahiz eta adierazlea arinki hobetu den aurreko irakurketarekin alderatuta, uzkuertze mailetan egon da. BPGari dagokionez, Eurozonan % 1 igo da urte arteko tasa, analistek esperotakoa baino hamarren bat gutxiago; aldez, ekonomia estatubatuarra % 2,1 igo da hiruhileko urtekoan, esperotakoa baino hamarren bat gehiago.

ERRENTA ALDAKORRA

Nahiz eta aurrerapenak egin diren orain arte merkatuei gehien kezkatzen zieten ziurgabetasun gune nagusietan, esaterako, Brexit-ean edo merkataritza gerran, koronabirusaren agerraldiak Txinako eta munduko ekonomian izan ditzakeen ondorioengatik kezka nabaritu egin da burtsen indize nagusietan. Europako burtsek hasierako errebotea desagerrarazi zuten eta Eurostoxx indizeak hilabetea % 3 inguruko jaitsierarekin amaitu du. Atlantikoaren beste aldean, indize amerikarren portaera hobea izan da, Dow Jones % 1 inguru jaitsi baita, S&P 500 ia-ia berdinean egon baita eta Nasdaq indizea ia % 3 igo baita. Japonia bi eskualdeen arteko bidearen erdian egon da, eta Nikkei indizeak % 2 inguru jaitsi itxi du hilabetea. Halere, koronabirus izena duen ziurgabetasun berri honek merkatu emergenteak kaltetu ditu gehien eta maila globalean % 5 inguruko beherakada izan dute, nahiz eta erraldoi asiarraren burtsa nagusiak itxita mantendu diren astebeteen baino gehiagoan (urtarrilaren 23tik) Urte Berri txinatarra dela eta.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.367,90	EUR	%-1,90	%-1,90
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.640,91	EUR	%-2,78	%-2,78
S&P-500	AEB	3.225,52	USD	%-0,16	%-0,16
DOW JONES	AEB	28.256,03	USD	%-0,99	%-0,99
NASDAQ 100	AEB	8.991,51	USD	%2,96	%2,96
NIKKEI-225	JAPONIA	23.205,18	JPY	%-1,91	%-1,91
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.062,34	USD	%-4,69	%-4,69
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.342,41	EUR	%-0,68	%-0,68

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Koronabirusak sortutako ziurgabetasun handiak lagundu du beherantzko mugimendu handi bat eragiten zor subiranoaren errentagarritasunetan hala Europan nola AEBn. Horrela, hamar urteko bonu alemaniarren errentagarritasuna 25 op jaitsi da -% 0,43ra arte eta epe berdineko interes tasa espainiarra 23 op jaitsi da % 0,24ra arte. AEBn, hamar urteko erreferentzia 41 op jaitsi da % 1,51ra arte, ez soilik koronabirusari buruzko kezka lagunduta, baita FEDen bileraren komunikatuak lagunduta ere; izan ere, komunikatu horretan adierazi zuen ekonomia babesten jarraituko duela. Kredituak, aitzitik, diferentzialak handitu ditu.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,39	0,00	-0,01
	6 HIL.	-0,34	0,00	-0,01
	12 HIL.	-0,28	0,00	-0,04
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,67	-0,07	-0,07
	5 URTE	-0,64	-0,17	-0,17
	10 URTE	-0,43	-0,25	-0,25
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,43	-0,04	-0,04
	5 URTE	-0,23	-0,15	-0,15
	10 URTE	0,24	-0,23	-0,23

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Zuhurtasuna babes dibisa tradizionalen, esaterako, yenaren edo dolarren, erosketan ere islatu da. Horiek maila agregatuan indartu baitira. Librak, era berean, balioa irabazi du enpleguaren datu onak eta baikortasun enpresariala lortu ondoren. Horri guztiari Ingalaterrako Bankuak interes tasak ez jaisteko erabakia gehitu behar zaio, herrialdearen jardura ekonomikoa igotzen hasteko perspektibak baitaude. Lehengaiei dagokien, petrolioaren prezioak % 15,19 behera egin du, batez ere, Txinako arnasketako birusaren kutsapenak erregaiaren eskaria jaitsi dezakeen beldur, hazkunde ekonomikoari eragiten badio. Azkenik, urreak ere babes aktibo gisa jardun du eta ia % 4ko igoera izan du.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg